

EGUBERRIAK

2024

• GOIERRIKO •

HITZA

goiberri





Zorionak
eta Urte
Berri on!

**BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA**
943 02 81 00

**URRETXU-ZUMARRAGAKO
UDAL EUSKALTEGIA**
943 72 33 10

EGUBERRIAK



Eguberri eta Urte Berri on!

Bete-beteko Eguberri giroa antzematzen da dagoeneko Goierriin, Eguberri zaleen gozamen-erako. Kaleko argiak piztuta, saltokietako erakusleihoak apainduta, Olentzero eta Mari Domingi opariak prestatzen, kantuak entseatzeko, otorduak prestatzen, erosketak egiten, etxeak Eguberri ukituz jantzita, Goie-

rriko kultur agenda lodi-lodia, urtea korrika eginez amaitu nahi dutenak entrenamenduak eginda...

Datorren urtean ere elkarrekin izango garrelakoan, Eguberri on zoriontsuak eta Urte Berri on opa dizue Goierriko Hitza-Goiberriko lantaldeak.

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak S.L. Lege gordailua: SS - 1052/04

Helbidea: Oriamendi, 32 • BEASAIN / Iparragirre, 11 • URRETXU Telefonoa: 943 16 00 56 / 943 72 34 08

Posta elektronikoa: goierri@hitza.eus webgunea: goierri.hitza.eus

Zorionak eta Urte Berri on




murumendi
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



Eguberrietako apaingarriak

Gabonak gainean dira, eta opariak eta oturuntzak antolatzearekin batera, etxeari ere Gabon ukitua emateko garaia da. Askotan ez da askorik behar, batez ere etxeak txikiak direnean, baina Gabon garaia dela adierazteko modu desberdin ugari dago, elementu tradizionaletatik harago.

Eta horixe erakusten du Ordiziako Alonso

ferreteriako erakusleihoak. Ohiko arbola berdearen ordez, aukera askoz ere zabalagoa dela merkatuan. Ezker-eskubi, bi erakusleihoak Gabonetako apaingarriez beteta dituzte. Ez dago dena berria erosi beharrik, zaharrak eta berriak nahastu daitezke.

Ordiziako Urdaneta kalean Alonso ferreteriari iaz denda berritua ireki zuenean, Egu-



Martina Maiz, 3 • BEASAIN

 lontxo2021@gmail.com

 678 79 76 04

Whatsapp bidez eguneroko eskaintza jaso dezakezu

Etxez etxeko banaketa eguerdi eta arratsaldean



APAINGARRIAK



«Tamaina eta modelo desberdinetako arbolak ditugu. Berdean, txurian, arrosan, argiekin, argirik gabe...»

Jon Villar
Alonso ferreteria

berriei lotutako dekorazioko produktuak saltzea erabaki zuen, erakusleihu bereziak jarrita Jon Villarrek nabarmendu duenez. «Ikusi genuen produktu horiek saltzeko merkatua bazegoela eta ekartzea erabaki genuen. Ikusi genuen produktu onak zeudela prezio onean eta horregatik ekarri genituen. Iaz probatu genuen eta oso ondo joan zen». Aurten ere errepikatzea erabaki dute.

Izan ere, merkatuan aukera oso zabala dago, «denetarik» dago. «Etxe handia ere

eduki beharrik ez dago apaintzeko. Detaile txiki batzuekin dekorazio txukuna jar daiteke. Originalak, betikoez aparte».

Arbolak adibidez, tamaina eta modelo desberdinak. «Berdean, txurian, arrosan, argiekin, argirik gabe... modelo desberdinak. Kartulinazkoak ere ba,; gorria eta txuria. Eta egurrarekin egindakoak ere bai».

Bolak ere nahi beste: «Plastikozkoak, kristalezkoak, kristalezkoak barruan panpintxo txikiekin».

Gehien zer saltzen duten galdetuta, «arbolak eta bolak. Argiak ere asko saltzen dira, argitu du.

Aurten gainera eskaintza zabaldu dute, arbolaren ingurua dekoratzeko: «Panpinak, jostailuak... arbolaren ingurunea dekoratzeko produktu gehiago ekarri dituzte aurten».

Aitzakiarik beraz ez dago aurten.

Hipermerkatua



EROSKI

Ordizia



Eguberri zoriontsuak guztioi!



Umetako oroitzapenen zaporeak

Lan bete-beteko garaia da Iker Markinez sukaldariarentzat, Beasaingo Kaxolan janari prestatuak saltzen baitituzte. Eguberri garai honetan otorduak duten garrantzia ikusita, herritarrei lana erraztera dator Kaxola.

Bertako produktuekin eta inolako gehiga-

rririk gabe, bere aitona esaten zuen bezala, «janari ona eta on egiten duena» sukaldatzea baita bere helburua. «2024an gaude eta badi-rudi gero eta zailagoa dela janak on egitea, gehigarri asko botatzen zaielako, gorputzari kalte egiten dienak».



kale Nagusia, 16 ■ ORDIZIA
tel. 943 881 832

m h
mujika
harategia

z u e k i n 1 9 6 3 t i k



Nafarroa etorbidea, 31 ■ BEASAIN
tel. 943 880 488

OTORDUAK

Beste erronka bat ere badu Markinezek: umetako zaporeak lortzea. Izan ere, «gure txikitako oroitzapenak dakarzkigunaren janariaren bila joaten gara. Praktikan, amonak egiten zituen kroketen bila». Beasaindarren esanetan, «guk nahi duguna, norbaitek arroz esnea edo gixatua jaten duenean goxoa dagoela esateaz gain, garai bateko zaporeez gogoraratzea. Ezinezkoa dela dirudi, baina gertatu egiten da. Jendea etorri eta esan egiten digu».

Kukon egiten zuen bezala, «bertakoaren aldeko apustu egiten dugu. Saiatzen gara beti hemengo ekoizleekin lan egiten. Kuko jatetxean ere horrela izan zen eta Kaxolan ere berdin jarraitzen dugu».

Lana gutxitu eta erraztu

Beraz, Eguberrietako jai egun hauetan, sukaldetan ordu gutxiago pasatzeko aukera ematera dator Kaxola, Gabonetarako eskaintza berezia prestatu baitu. «Errazteko etorri gara. Ona izateaz gain, etxera eraman eta etxean prestatzeko erraza izan behar du janariak. Eskari asko izaten dugu egunotan».

Aurtengorako gainera, eskaintza zabala-goarekin dator. «Iaz jende asko geratu zen arrain zoparen gogoarekin, eta aurten izango dugu».

Gainerakoan, krokreka, arrain pastela,

«Janari ona eta on egiten duena sukaldatzea da helburua»

Iker Markinez

Kaxola

foie micuit, karrillerak, txipirioiak bakailoa, piper beteak... izango ditu aukeran. «Kroketak, freskoak: ziazerba, onddo eta urdaiazpikoarenak. Kongelatuak, gaztarenak, Olaberriko Etxeberriko goiko eta Telleria gaztarekin egindakoak».

Otorduei beste «ukitu» bat emango dien «sarrera kreatiboxeagoak» ere izango ditu. «Iaz arrakasta handia eduki zuen penka beteak, espinakekin eta arrautzeztatuak izango ditugu. Krep ezberdinak, barazkiarekin, bakailoarekin... Berenjena gratinatua...».

Turroia egiten ikasteko gogo

Markinezek badu gogo bat: «Harra daukat turroia egiteko. Gustatuko litzaidake turroia egiten ikastea. Aurten ez da posible izan oraindik». Datorren urteko Eguberrien zain geratu behar, beraz.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza
kirol masajea

Zure edertasuna eta orrazkera gure esku utzi

28 urte zuekin!

Tel.:943 16 22 56 Iturtxo bidea, 5 ORDIZIA  

EGUBERRIAK



Olentzero (I)

Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenean
negua_hemen dela,
lasterka etorri da
berri ematera.

Horra, horra,
gure Olentzero,
pipa hortzetan duela
eserita dago.
Kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero gurea
ezin dugu ase,
osorik jan dizkigu
hamar txerri gazte.
Saiheski ta solomo,
horrenbeste heste,
Jesus jaio delako
erruki zaitetze.

Horra, horra,
gure Olentzero,
pipa hortzetan duela
eserita dago.
Kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero (II)

Olentzero begi gorri
nondik atera duk arrai hori
zorioneko erreketan
arratseko hamaiketan.
Armairuan xagua
haren onduan katua
etxe honetako sariakin
beteko dugu zakua.

Olentzero (III)

Olentzero buru haundia
entendimentuz jantzia
bart arratsean
edan omen du
bost arrobako zahagia.
Hoi urde tripa haundia
tragatu baitu
tragatu baitu.
Hoi urde tripa haundia
tragatu baitu zahagia.

Lanbroa

Bidezahar, 7
Tel.: 943 03 75 27
ZUMARRAGA



Lanbroa
bi

Kale Nagusia, 24
Tel.: 943 73 17 98
LEGAZPI

1988tik zuekin

Estetika

Dietetika

Produktu biologikoak

GABON KANTAK

Horra Mari Domingi

Horra Mari Domingi
begira horri
gurekin nahi duela
kantura_etorri.
Gurekin nahi baduzu
Kantura_etorri
atera beharko duzu
gona zahar hori.

Hatoz, hatoz,
zure bila nenbilan ni!
Hatoz, hatoz
zure bila nenbilan ni!
Hatoz goazen
ta gurtu dezagun
negu gorria,
ongi etorria!
Ongi etorria!

Hator hator

Hator, hator, lagun etxera
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaua ospatutzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
amaren poz ta atseginez.

Eragiok, lagun,
aurreko danbolin horri.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli txapla, pum!
Gabon gaua pozik igaro daigun.

OLANO
HARATEGIA

ETXEKO HARAGIA
ODOLKIAK

AUREZ PRESTATUTAKO
JANARIAK

Andre Mari, 3 - BEASAIN
T: 943 880 778 F: 943 164 895
carniceriaolano@gmail.com



EGUBERRIAK



Kanpaiak jaietan

Kanpaiak jaietan, dindan dindan tintintan.
Izarrak argitan Gabon gauean [bis]

Mara mara elurra, txuri txuri gailurrak.
Jainkoa jai da, poztu da lurra.

Kanta bat entzun da gaeuz mendialdean.
Zorion, zorion! Guztioi Gabon! [bis]

Belengo estalpean sehaskatxo batean
lo dago haurtxoa gure Jainkoa.

Kanpaiak jaietan, dindan dindan tintintan.
Izarrak argitan Gabon gauean [bis]

Eguberri zuria

Oi, eguberri zuria!
Zilar distiraz jantzia
Leihoan elurra,
gauaren mugan,
negu haize atarian.

Hotz eta ilun gurian
eta goxo sutondoan.
Ospa dezagun sendiak
berriz ere eguberri zuria! [bis]

Gaueko izar

Gaueko izar argitsuena
piztutzeakin batera
Haurtxo eder bat etorri
zaigu gaur arratsean etxera.

Ordu ezkeroz etxeko denok
poztu ta zorutzen gera.
Haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.

Alai ta pozik kanta dezagun
haurtxo honen etorrera
gure iluna alaituzeko
jaino dan argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan
zorionekuak gera
haurra dalako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.



ARRAINAK ETA ITSASKIAK



Tel.: 943 160 331
Oriamendi, 24 BEASAIN



**ALEX
KIROLAK**

www.alexkirolak.com



ZUMARRAGA ● Tel.: 943-72 52 22

GABON KANTAK

Elurra teilatuan

Elurra teilatuan,
abarra basoan,
taloak erretzeko
irina auzoan.
Rau, rau, rau, rau,
rakataplau!
Hau duk umorea,
utzi alde batera,
euskaldun jendea.

Kortan daukagu txala,
hezurra ta azala
Aita San Antoniok
loditu dagiala.
Rau, rau, rau, rau,...

Astean bariku bi
zapatuan beti
domekan okelea
auzoan ikusi.
Rau, rau, rau, rau,...

Elurra teilatuan,
zakua lepoan,
ibili beharko degu
aurtengo neguan.
Rau, rau, rau, rau,...

Gaztea nintzenean,
denbora batean,
ez nintzen sosegatzen
ezkondu artean.
Rau, rau, rau, rau,...

Ezkondu eta gero
hilabete gabe
porrusaldea neukan
oliorik gabe.
Rau, rau, rau, rau,...

Porrusaldatxo likin,
olio gabea,
ez nintzen ni gaztetan
holako zalea.
Rau, rau, rau, rau,...

Prah, prah

Prah, prah, prah, prah, prah...

Artzain jendea dator
presaz Belena.
Gu ere bagoaz al den lehena.
Eguberrien bezpera
beti honela ez gera,
hori inolaz galdu ez dadin
etorri gera eskera.
Galdu ez dadin, galdu ez dadin
txanpon bila gatoz zure etxera.

Prah, prah, prah...

Dringilin dron

Dringilin dron, Gaur Gabon,
Sabela betea daukat eta
Besteak hor konpon. [bis]

Maskelu bete, aza egosi,
hori, zuri [e]ta gorriak,
berehala irentsi neutsazan
azkenengoko orriak. [bis]

Dringilin dron, Gaur Gabon,
Sabela betea daukat eta
Besteak hor konpon. [bis]





Alaken

Alaken, alaken,
ala pikula tun paire,
errespun dela pikula tunpa,
Jesus Maria Jainkoa zen. [Bis]

Adiskideok!
Ikusi duzue zelai horietan
artzaina?
Artzain txiki,
artzain handi,
artzain mutur leguna. [Bis]

Alaken, alaken, ... [Bis]

Lo leri leo,
goxo duk goxo,
neguan etxe zokoa. [Bis]
Gaur jaio da, gaur,
Jesus haurtxoa.
Lo leri leo,
hiru errege
izar baten arrastoan,
lo leri leo,
tranka, trankatran,
hirurak zaldiz badoaz.

Alaken, alaken, ... [Bis]

Alakinkiri

Erran dut, erranen eta errango,
ez naiz isilik egongo,
plaza hontako dama gazteak
ez dira moja sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,
ala kinkiri kunkuru kanta,
ala kinkiri kunkuru kanta
gu bezalakoak dira,
hola!

Erran dut, erranen eta errango,
ez naiz isilik egongo,
plaza hontako gizon gazteak
ez dira fraile sartuko.

Ala kinkiri...

Erran dut, erranen eta errango,
ez naiz isilik egongo,
plaza hontako gazte guztiak
ezkontzan dira sartuko.

Ala kinkiri...

NAPARRA
HARATEGIA

Festetako otorduak gure esku!

Urdaneta Kalea, 25
Ordizia

943 16 15 14 - 645 55 68 03

borja
de **cuesta**
la

Kortinak,
alfonbrak,
etxeko arropak,
estoreak eta panel japoniarrak

Tel.: 943 880 432
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

EGUBERRIETAKO MENUA

**ZO ZERAINGO
OSTATUA**

Aiert Izagirrek emandako errezetak.



Argazkiak:
Mikel Albisu



Bakailaoz betetako piperrak

OSAGIAK

(4 lagunentzat)

12 pikillo piper

Barruko orea

Tipula 1

Piper berde erdia

Baratxuri ale bat

Litro erdi bexamela

500 gr bakailao

Saltsa

2 tipula

2 baratxuri ale

6 pikillo piper

Litro erdi bakailao salda edo ura

Prestaketa

Tipula, baratxuria eta piper berdea txiki-txiki ebaki eta zartagin batean gorritu. Bakailaoa gehitu eta egiten utzi. Bexamela gehitu eta dena ondo nahastu. Hozten utzi eta piperrak bete.

Saltsa egiteko tipula eta baratxuria txikitu eta su ez-tian bigundu. Piperrak eta salda gehitu eta 30 minutuz irakin. Gatza gehitu eta irabiatu

Piperrak saltsan jarri eta 15 minutuz su ez-tian irakiten eduki.

Aurkezpena

Platera baten erdian piperrak jarri, saltsarekin estali eta perrexil xehatu pixka bat gainetik bota.

EGUBERRIETAKO MENUA



Erreboiloa labean

OSAGIAK

(4 lagunentzat)

1500 gr-ko erreboiloa

Oliba olioa

Gatza

4 baratxuri ale

Ozpina

Kaiena piperra

Kilo erdi patata

Tipula erdi bat

250 ml ardo zuri

Prestaketa

Patatak eta tipulak zuritu eta xerra finetan ebaki, gatza gehitu, nahasi eta ardo zuriarekin laberako erretilu batean jarri. Guztiz esaltzen ez bada, urez estali. Labean sartu 180 gradutan 30 minutuz.

Erreboiloaren alde ilunean labana batekin ebaki buruaren azpitik isatsera. Labeko erretilu batean oliba olio apur bat eta ur pixka bat jarri. 18-20 minutuz laberatu erreboiloa, 220 gradutan

Zartagin batean oliba oliotan kaiena eta baratxuri xerratua gorritzen jarri. Gorritutakoan erreboiloari gainerik bota.

Aurkezpena

Sortzen den salda zartaginera bota eta nahasi, erreboiloari gainerik bota, perrexil xehatua gehitu eta patatekin zerbitzatu.

EGUBERRIETAKO MENUA



Jogurt, fruitu gorri eta mango krema

OSAGIAIAK

(4 lagunentzat)

250 gr. fruitu gorri
500 gr. jogurt
200 gr. azukre
100 ml. esne-gain
250 ml. mango purea

Prestaketa

100 gramo azukre ur pixka batekin irakin, fruitu gorriak gehitu eta irakinarazi. Hozten utzi.

Jogurta beste 100 gramo azukre eta esne-gainarekin nahasi.

Mangoa zuritu eta irabiatu

Aurkezpena

Edalontzi edo kopa batean fruitu gorri koilarakada bat ipini, jogurta gehitu eta azkenik mango purea.



Ibur

hipika kluba

Ibur Baserria, sakabanatua 26, Itsaso
663 06 00 11 - 665 73 53 00
iburhipikakluba@gmail.com
www.iburhipika.eus



- Irteerak
- Ikastaroak
- Ikastaro trinkoak GALOPEetako azterketak egiteko
- Sudaderak, elastikoak, euritako txamarrak...
- Klaseetarako bonoak
- Irteeretarako bonoak
- Coaching saioak
- Konstelazioak
- Terapiak zaldiekin
- Adimen emozionala
- Ponyak
- Campusak
- Clínic-ak
- Eskola Kirola...

Zer gehiago
eska
geniezaioke
Olentzerori?



Zaldiz ikasten

HIPIKA IKASTAROAK
HELDU ETA GAZTETXOENTZAT



Abenduko kultur proposamenak

Eguberri garaian agenda bete-betea dator Goierriin. Orain arte jasotako ekintzen bilduma da ondorengo lerroetakoa.

Altzaga

- **Abenduaren 24an.** 09.00etan, kantu eskeak.

Arama

- **Abenduaren 20an.** *Ameli eta Xirrikitu* en jostunak kontaktetako. 17:30ean haurren saioa eta 19:00etan helduena.
- **Abenduaren 23an.** 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.
- **Abenduaren 24an.** 09:00etan, kantu eskeak.

Ataun

- **Abenduaren 13etik 15era.** Euskal liburu eta disko azoka, San Martingo Antzokian. (Ikusi 30. orria).

Beasain

- **Abenduaren 14an.** 16:30ean, Aurtzakako umeen emanaldia. Usurbe Antzokian.
- **Abenduaren 17an.** 20:15ean, Dantzas konpainiaren *Distirak* dantza ikuskizuna. Usurbe Antzokian.



- **Abenduaren 19an.** 17:00etan, Itziar Saenz de Ojerren *Eguberri kontuak* kontakteta antzetzua, udal liburutegian. 19:30ean, Eguberri kontzertua: Banda, Txistulari taldea, Perkusio taldea, ML3, Korral taldea, Harizko orkestra. Andre Maria Zeruratuaren parrokiaren.
- **Abenduaren 20an.** 18:00etan, 23. Goierriko artisten topaketaren inaugurazioa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.
- **Abenduaren 21ean.** 19:30ean, Ostadar dantza taldearen jaialdia, Usurbe Antzokian.
- **Abenduaren 22an.** 19:00etan, Narama eta Loinatz abesbatzen kontzertua. Loinazko San Martin basilikan.
- **Abenduaren 23an.** 10:00etatik. 13:00etara,



JESUS MARI DERA

HESTEBETEA / "ORMAIZTEGI" ODOLKIAK

*Hainbat lehiaketetan txapeladun
Barazki eta arroz-odolkiak
Mondejuak*



Anduaga Industrialdea, 9 ☎ 943 72 17 10
EZKIO

Zumalakarregi Plaza, z/g ☎ 943 88 26 59
ORMAIZTEGI




sukaldeak eta etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia, 10
TEL.: 943 882 300 **ORDIZIA**

Nafarroa Etorbidea, 16
TEL.: 943 884 375 **BEASAIN**

Gabonetako oparietan aukera zabala

www.suquia.eus 

AGENDA

Gabonetako kartel lehiaketan saritutako lanen erakusketa, plaza azpian.

- **Abenduaren 24an.** 12:00etan Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria plazan. 12:30ean, joaldunak. 18:00etan, Olentzeroren irteera, Igartzatik hasita Bonberiraino.
- **Abenduaren 25ean.** 12:00etan, Goizeresi Txistulari elkartearen kalejira.
- **Abenduaren 26an.** 19:00etan, Kirol Sarien gala. Igartzan.
- **Abenduaren 27an eta 28an.** 11:00-14:00 eta 16:00-19:30 Gabonetako haur parkea Antzizar kiroldegian.
- **Abenduaren 27an.** 19:00etan, Goieniz zine klubaren Gau Laburra. Usurbe Antzokian.
- **Abenduaren 29an.** 20:30ean, *Miñan* antzerkia, Usurbe Antzokian.

Ezkio

- **Abenduaren 24an.** Kantu eskea, etxez etxe.

Gabiria

- **Abenduaren 24an.** Etxez etxe gabon eskean ibiliko dira herriko talde ezberdinak.

Idiazabal

- **Abenduaren 14an.** Kantu bazkaria, Arretxe elkartearen.
- **Abenduaren 15ean.** 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, Alaken Azoka. Igarondo pilotalekuan.



- **Abenduaren 20an.** 20:00etan, *Amarau*n bertso eta dantza ikuskizunaren azken emanaldia (Oihana Iguaran eta Amaiur Lu-luaga). Zelaako kiroldegian. Sarrera, 5 euro.
- **Abenduaren 24an.** 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.
- **Abenduaren 26tik urtarrilaren 3ra.** Gabonetako sorkuntza lanen erakusketa. Udaltxeko areto nagusian.
- **Abenduaren 27an.** 19:30ean, Ruper Ordorika (bakarka). Guraso Elkartearen.

natx 
Dietetika-Belardenda

Medikuntza orokorra eta alternatiboa
Erreflexologia eta emozioen kudeaketa
Elikagaien bateraezintasuna
Dietista-nutrizionista
Iridologia

Familia ugarietarako deskontuak

Kale Nagusia, 15 BEASAIN tel.: 943 08 91 15



EGUBERRIAK

Itsaso

- **Abenduaren 21ean.** 18:30ean Itsaso herri-gunean eta 20:00etan ostatuan, Gaboneta-ko apainketa eta Gabon kanten entsegua. Ondoren, Santo Tomas eguna ospatzeko, txistorrarekin mokadutxo.
- **Abenduaren 24an.** 09:00etan hasita, Itsason etkez etxeko erronda.

Itsasondo

- **Abenduaren 24an.** Mari Domingi eta Olenzero.

Lazkao

- **Abenduaren 13tik 15era,** liburu azoka. (Ikusi, 30. orria).

Legazpi

- **Abenduaren 14an.** 12:00etan, Felix Ibargutxiren *Santa Maria kalea* liburuaren aurkezpena. Kultur etxean.
- **Abenduaren 14an.** 19:30ean, Alaitasuna Errondaila. Gizarte Egoitzan.
- **Abenduaren 18an.** 18:00etan, Doinua musika eskolako ikasleen Gabon kontzertua. Latxartegi aretoan.
- **Abenduaren 21ean.** 19:30ean, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik *ZtandaP* bakarrizketa saioa, Latxartegi aretoan.
- **Abenduaren 22an.** 19:00etan, Santikutz abesbatza eta Musika Banda. Elizan.



- **Abenduaren 25ean.** 09:00etan, Goiz Deia txistulari taldearen kalejira.
- **Abenduaren 26an.** 18:00etan, *Tomaxen abenturak: misterioa ikasgelan* haur antzezlan, Latxartegi aretoan.
- **Abenduaren 27an.** 19:00etan, Santikutz Abesbatzarekin gabon kantak. Kalean.
- **Abenduaren 28an.** 12:30ean, Goiz Deiaren kontzertua. 18:30ean, Korosti dantza taldea, Urbeltz pilotalekuan.

Legorreta

- **Abenduaren 13an.** 22:30ean, Unidad Alavesa, Herri Antzokian.


Koeta
jatetxea

Zuazola auzoa 12A
943 88 71 86
GABIRIA



Arreta zuzena
eta doakoa
eskainiko da

zer
tara
ko?

- Argindar eta gas **fakturak ulertu**, aztertu eta optimizatu.
- **Tramiteen kudeaketan lagundu**: kontratu aldaketa eta potentzia aldaketa.
- Bono sozialaren eta **dirulaguntzen** inguruko informazioa eman.
- **Energia aurrezteko** aholkuak eman.

non
eta
noiz?

GOIZEZ 10:00-14:00

09:00-13:00

LAZKAO
Astelehena

Udaletxea, Euskadi
Enparantza, z/g.

BEASAIN
Asteazkena

Martina Maiz, 3.

ORDIZIA
Ostirala

Udaletxea,
Arreta bulegoa

ARRATSALDEZ 15:00-17:30

GOIEKI

Astelehenetik ostegunera

Arranomendia 5, NBF Eraikina, Ordizia.

Goierriko beste herrietan ere zerbitzua aurrez aurre emateko aukera egongo da.

HITZORDUA energia.goieki@goierri.eus | 843 739 988

Bultzatu
etorkizuna,
egin Goierri!

Egin maite
duzuna,
egin Goierri!



Gipuzkoako Foru Aldundia
Jardueraren Departamentua

EGUBERRIAK

- **Abenduaren 14an.** Gaztetxearen XX. urteurrena. Egun osoko ospakizuna.
- **Abenduaren 15ean.** Elkartasun Azoka eta bidezko merkataritza, pilotalekuan.
- **Abenduaren 20an.** San Tomas eguna ospatuko dute eskolan.
- **Abenduaren 21ean.** 19:00etan eta 22:00etan, Txalok aurkeztutako *Almazanean* antzez-lana, Herri Antzokian.
- **Abenduaren 24an.** Kantu eskeak: 10:00etan, gaztetxetik. 10:30ean eskolatik. 12:30ean, Eleku abesbatza kantari. 17:30ean, olentzerok opariak banatutako dizkie haurrei elizan. 18:00etan Bide-Gaindik, presoen aldeko eskea.
- **Abenduaren 27an.** 23:00etan, X. Marranita txapelketa Aldapa Haundi elkartearen. Izen ematea, 5 euro.
- **Abenduaren 28an.** 22:00etan, Zea Mays. Herri Antzokian.
- **Abenduaren 29an.** 18:00etan, bertso saioa Herri Antzokian, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Iker Zubeldia eta Oihana Iguaran bertsolariekin. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

Mutiloa

- **Abenduaren 15ean.** 18:00etan, *Zopa* antzez-lana.
- **Abenduaren 24an.** Olentzeroren etorrira eta kantu eskea.



Olaberria

- **Abenduaren 26an.** Nerabeen frontenis txapelketa. 10 urtetik gorakoentzat.
- **Abenduaren 27an.** Baskoniaren saskibalo partida ikustera irteera.

Ordizia

- **Abenduaren 13an.** 19:00etan, Mikel Urretagoienaren kontzertua. D'Elikatuzezn. Dohainik.
- **Abenduaren 16an.** 17:30ean, *Azken hostoa* ipuin kontaketa musikatua, Barrenan. 2 urtetik aurrera haurrentzat.
- **Abenduaren 16tik 20ra.** 16:30etik 17:30era, Jakintza Ikastolaren merkatu txikia, D'Elikatuzen.
- **Abenduaren 18an.** 10:00etan, Euskal Herriko txistorra lehiaketa. Udaletxe azpian.

Javier Arratibel
optika

A photograph showing the exterior of the Javier Arratibel optika store. The store has a modern facade with large glass windows and doors. The name 'Javier Arratibel optika' is visible on the storefront.

arratibeloptika@gmail.com
© 943 72 54 84 • Soraluze, 10 • ZUMARRAGA

eiRe
ilcapaindegia

943 54 08 45
Santa Magdalena, 2
LAZKAO

A photograph of the interior of the eiRe hair salon. The room is bright and modern, featuring several pink hair chairs, mirrors, and styling stations. The walls are light-colored, and there are decorative elements like a large mirror and a pink cabinet.

Zorionak eta Uste Berri on!

AGENDA

17:00etan, *Txiki Kosmmos album familiararen berrinterpretazioa* argazkien bidez, liburutegian. LH3-6 bitarteko haurrei zuzenduta.

- **Abenduaren 19an.** 19:15ean, Gabonetako kalejira musika eskolako ikasle eta bandarekin.
- **Abenduaren 20an.** 20:00etan, Oroith eta Oroith Txiki abesbatzen kontzertua, elizan.
- **Abenduaren 21ean.** 12:30etik aurrera, Plaza Nagusitik abiatuta, Burunbazale eguna.
- **Abenduaren 22an.** 18:00etan, Emotio taldearen Gabonetako kontzertu solidarioa, Valentziako uholdeetako kaltetuentzat, elizan. 20:000etan, Juan de Diego grebalariak taldearen kontzertua, Sugaar tabernan.
- **Abenduaren 24an.** 09:00etan, Eguberrietako azokoa berezia. (Ikusi 29. orria). 12:00etan, Olentzero eta Maridomingiren ekitaldia, Beti Alai pilotalekuan. 16:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren karroza auzoz auzo. Amaiera, Beti Alai pilotalekuan. Bukatzeko, Burrunbazale txaranga.
- **Abenduaren 25ean.** 10:30ean, Beti Argi musika bandaren diana eta 13:00etan, Eguberrietako kontzertua, Plaza Nagusian.
- **Abenduaren 28an.** 16:00etan eta 18:30ean Porrotx eta Marimotots pailazoan *Ostirala irits da* ikuskizun berria. Majorin.
- **Abenduaren 29an.** 18:00etan, bakarriketak. Dohainik. Herri Antzokian.



Ormaiztegi

- **Abenduaren 24an.** 11:30ean, Gabon kantak Olentzero eta Mari Domingiri. 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera plazan. Ondoren, gaztaina jana, eliz atarian.

Segura

- **Abenduaren 13-14-15.** Liburu azoka. Botikaxaharrean. (Ikusi 30. orria)
- **Abenduaren 15an.** 10:00etan, *Euskal herriko historia euskaldunok kontatua*. Erraztiolatza museoaren aurretik abiatuta.
- **Abenduaren 19an.** 19:00etan, literatur tertulia, libururegian.



Gabon jai hauetako otorduak bereizteko eta errezteko eraman zure etxera **KAXOLA**ko janari prestatu goxo eta kalitatezkoak

Jai zoriontsuak!

kaxola

zapareen abiapuntua

Ɔker Morlaines



747-45 65 37

Nafarroa Etorbidea 18

BEASAIN

- **Abenduaren 20an.** 19:30ean, bingoa eta txistorra jana, plazan, Aisialdi taldearen eskutik.
- **Abenduaren 21ean.** Gaztaina eta txistorra jana Atsedeen elkartearen.
- **Abenduaren 22an.** 12:00etan, XXI. Ipuin, bertso eta marrazki sariketa. Botikaxaharrean.
- **Abenduaren 24an.** 11:00etan, kantu eskea. 18:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Lastala aldetik. Ondoren plazan, haur jaio berriei ongi etorria, Azpilla dantza taldea eta korua.
- **Abenduaren 25ean.** Txistularien Alborada.

Urretxu

- **Abenduaren 12-13an.** Santa Lutzi azoka.
- **Abenduaren 15ean.** 17:00etan, *Jon Beldurgabea* haur antzerkia.
- **Abenduaren 17an.** 17:00etan, Eriz Magoaren *Begizur* ikuskizuna. Liburutegian.
- **Abenduaren 19an.** 17:00etan, Alberto Bargasoren *Olentzero eta bere lagunak*. Liburutegian.
- **Abenduaren 20an.** 19:30ean, Gabonetako kontzertua: Iparragirre Balerdi musika banda, Secundino Esnaola musika eskolako haur abesbatza eta Lizarriturri txistulari elkarteak. Elizan.
- **Abenduaren 24an.** 18:00etan, Goiargi abesbatzaren Gabonetako kalejira.



Zaldibia

- **Abenduaren 13an.** 17:00etan, Musika Eskolako ikasleen emanaldia Udaletxeko aterpean.
- **Abenduaren 20an.** Goizean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.
- **Abenduaren 24an.** Guraso Elkarteak antolatuta, 11:00etan eskolako familiekin kantu eskea herrian zehar. Ondoren gaztainak erreko dira. Xirikara elkarteak antolatuta, baserri baserri eskea 08:00etan, Zubi Burutik abiatuta.
- **Abenduaren 27an.** Arratsaldean, harri-jasotzaileak eta pilota partidak, Resti pilotalekuan, Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuta.
- **Abenduaren 30ean.** 17:00etan, *Azken Eguzkilorea* haurrentzat antzezlan antzokian.

30 urte

Antziaz dantza

Labores Otea

**Kuadrillen blusak
Baserritar jantziak**

943 16 23 84

Oriamendi, 19 - BEASAIN

Ondo pasa Gabonak!

OKINDEGIA - KAFETEGIA

Gosariak, patata tortilla...

Hirigoien, 26 LAZKAO 943 16 06 38

AGENDA

- **Abenduaren 31n.** Arratsaldean, San Silbestre lasterketa herrikoia Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuta. (Ikusi 28. orria).

Zegama

- **Abenduaren 13an.** 18:30ean, 38, Olentzerori eta Mari Domingiri ongi etorria, Egur museoaren atarian. Ondoren, udaletxeko plazan agurtuko dituzte. Jarraian gaztaina erreak. 20:00etan, Xabier Zubizarreta zegamararren *Ekintzaitza*. *Smartlog-en adibide praktikoa* hitzaldia. Amezti elkartearen.
- **Abenduaren 15ean.** 17:30ean. Iker Galartzaeren eta Zuhaitz Gurrutxagaren *Almazenean* antzezlana, eskolako patioan. Sarrerak, 10 euro.
- **Abenduaren 20an.** Oscar Rodriguez Pastora organo jotzailea, parrokiaren.
- **Abenduaren 24an.** 11:00etan, haurrak Gabon kantak abesten ariko dira. 18:00etan, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin Gabon eskea Olanaren auzotik.
- **Abenduaren 27an.** 16:00etan, mus txapelketa Karraztarro elkartean. 18:30ean, Jose Inazio Floresen omenezko herri kirola saioa eskolako patioan. 19:30ean, Balantza erromeri taldea, kioskoko plazan.
- **Abenduaren 28an.** Eguberri jaialdia Orkatz, Orkatz Gazte eta Orkatz Txiki abesbatzekin. Elizan.
- **Abenduaren 31n.** 08:00etan, Aizkorrrira i.



17:00etan San Silbestre lasterketa.
19:00etan, gaztaina jana herriko plazan.

Zerain

- **Abenduaren 14an eta 15ean.** Olentzero eta Mari Domingi Aizpeararen.
- **Abenduaren 24an.** 8:45ean autobus geltokian elkartutik abiatuta, kantu eskea. Goizean zehar, plazan umeak kantari. 19:00etan, Olentzerori eta Mari Domingiri ongi etorria. Haurrek eta Uharka abesbatzak gabon abestiak abestuko dituzte eta herriko dantzariak dantza egingo dute. Ondoren, Olentzerok eta Maridomingik, goxokiak eta gaztainak partituko dituzte. Gazte taldearen saskien zozketa.



Gerriko

Elosegi 16 LAZKAO

☎ 943 88 65 00

Faxa: 943 88 79 71

liburudenda@gerriko.eus

 www.gerriko.eus

EGUBERRIAK

Zumarraga

- **Abenduaren 12-3an.** Santa Lutzi azoka.
- **Abenduaren 22an.** 19:00etan, Goiargi abesbatzaren Gabonetako kontzertua. mertzedariarren elizan.
- **Abenduaren 17an.** 19:00etan, musika eskolako Gabonetako kontzertua, Zelai Ariztin.
- **Abenduaren 21ean.** 19:30ean, txistu kontzertua. Beloki pilotalekuan.
- **Abenduaren 22an.** 10:00-15:00etara, arte artisautza azoka. Euskadi plazan.

- **Abenduaren 22an.** 13:00etan, Zumarragako musika bandaren Gabonetako kontzertua Goiargi abesbatzaren partaidetzarekin.
- **Abenduaren 24an.** 18:00etan, Goiargi abesbatzaren Gabonetako kalejira.
- **Abenduaren 27an.** 19:30ean, Kadira musika taldea. Antion.
- **Abenduaren 30ean.** 19:00etan, Goiargi abesbatzaren Gabonetako kontzertua. Mertzedariatar Lekaimeen elizan.

San Silvestre lasterketak

- **Beasainen.** 12:00etan, Loinazko San Martin plaza azpitik. 10 km. 10:00etan hurren lasterketak.
- **Legorretan:** 12:00etan, 3,4 km.
- **Lazkaon:** 12:30etan, 5 km. 11:30ean, hurren korrika saioak.
- **Urretxu-Zumarragan:** Zalantzan.
- **Legazpin:** 17:00etan, bakarkaka nahiz bikoteka (mozorrotuta).
- **Zaldibian:** Arratsaldean. Hiru ibilbide.
- **Zegaman:** 17:30ean, 5 km. 17:00etan, haurrak.
- **Ordizian:** 18:30ean, Plaza Nagusitik, 6 km; 17:00etan, haurrak.



Zorionak eta urte berri on !

BENETAKO ARTZAI GAZTA
Zapore handiko kutixia
Gurea!

IDIAZABAL BASKARRION

EUROPEAN UNION



Eguberri giroko azoka bereziak

Eguberrien atarian, eta urtearen amaieran, azoka berezi garrantzitsuak izaten dira Goierriin.

Urretxun eta Zumarragan, Santa Lutzi egunekoak [abenduaren 13an], izango da lehenengoa, eta handiena. Gabonetarako erosketak egiteko plaza garrantzitsua da Santa Lutzitakoa.

Ordiziako Eguberrietako azoka berezia abenduaren 24an egingo da, 09:00etan hasita. 11:00etan, Garagartza plazan, 2024an nazioarteko mailan sariak irabazi dituzten gaztandegiak esker oneko ekitaldia egingo diete. Photocalla ere jarriko du Amest Bidek.

Eta urteko azkeneko azoka, abenduaren 31n izango da.



OIARBIDE

URDAITEGIA HARATEGIA

Tel. 943 80 16 80 Andraitz kalea, 3 ZEGAMA	Tel. 943 72 08 59 Legazpi kalea, 3 ZUMARRAGA	Tel. 943 88 27 47 Kale Nagusia, 40 BEASAIN
--	--	--



Euskal liburu eta disko azokak

Goierrin Ataunen, Lazkaon eta Seguran euskal liburu eta disko azokak izango dira abenduaren 13tik 15era bitartean. %15eko beherapena izango da erosketetan.

Ataunen

Abenduaren 13an 18:00etatik 20:00etara eta **abenduaren 14an eta 15ean** 11:00etatik 14:00etara, San Martingo herri antzokiko sarreran. Bi liburu aurkezpen ere izango dira: **Abenduaren 14ean**, 12:00etan, Iñaki Perurenaren *Harría bidelagun*; eta **abenduaren 15ean**, 12:00etan, Mikel Sarriegiren *Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak. Oinordetza ezkutua*.

Lazkaon

Abenduaren 13an (16:30-20:00), 14an (10:00-14:00) eta 15ean (11:00-14:00) plazako pilotalekuan. Liburu aurkezpen ugari antolatu dituzte. **Abenduaren 12an**, 11:00etan, *Nork bere atsegin soroa esploratzeko postalen* Aratz Aranburu Insausti eta Nekane Munduate Urdangarin egileek, Gerriko liburu-dendan.



eta 18:30ean, Hitz&Musik, Maite Mursego, Gerriko Txokoan. **Abenduaren 13an**, 19:00etan, Eider Saezen *Nola aldatu gara* disko berria. **Abenduaren 14an**, 12:00etan, Antton Arrieta-*ren Euskal Herriko gazte*. **Abenduaren 15ean**, 12:00etan, Maitane Ormazabal eta Iker Irribariaren *Irri*. Amaitzeko, 12:00etan, Lazkaoko Bandaren Gabonetako kontzertua izango da.

Seguran

Abenduaren 13an 18:30etik 20:30era Botikaxaharrean. **Abenduaren 14an** 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era. Eta **abenduaren 15ean**, 11:00etatik 14:30era.

Itsasondo-koop
08|00
19|00
ordutegi jarraia

janari denda

Ogia eta prentsa
Produktu ekologikoak
Igande/jaiegunetan goizez irekita

943 96 72 19 © 722 36 61 73
Nagusia, 21 - ITSASONDO

NEU albaitaritza

Irati Apalategi
Albaitaria Ekografian espezializatua

Akupuntura eta txinatar medikuntza tradizionala

24 orduko urgentzi zerbitzua
www.neualbaitaritza.eus
Nafarroa etorbidea, 1 Beasain
943160675 / 665741327 ecoirati@hotmail.com

Oskarbi

o i n e t a k o a k



WWW.ZAPATOSOBI.COM



**TOKIAN TOKIKO SALTOKIAN EROSI.
Beti duzu saria!**

**tokian
tokiko
saltokian**



Beasain

MERKATARITZA,
OSTALARITZA
ETA ZERBITZUAK